

www.unescoetxea.org

2013

**TXOSTENA
UNESCO ETXEA**

RUPER ORMAZA LEHENDAKARIA



UNESCO Etxeko Ohorezko Bazkideak, Gobernu Kontseilua eta Lan-taldea. Ohorezko Bazkideen Aholku Batzordearen Biurteko 5. Topaketa. "Herriarren parte-hartzea eta erantzukizuna demokrazia hobeto baterako" Adierazpenaren aurkezpena. Bilbo. 2013ko Irailaren 21a.

Gauzak gogora ekartzea ariketa pertsonal eta instituzional ona da, egunetik egunera gauzez gehiago jabetzeko eta garenaren alde egiten jarraitzeko, beti doikuntzak eginez eta gure erronkak berrituz.

Bazkide-elkarte bat gara, eta gure misio, ikuspegi eta balio berak dituen talde profesional baten lankidetzarekin, gizartea eta gizateria oro har eraldatzearen alde egiten dugu.

Euskaldun unibertsalak gara, eta hala izaten jarraitu nahi dugu. Baliagarri eta aldaketen bultzatzaile gara eta hala izaten jarraitu nahi dugu, bai eta gure herrialdearen zein oro har planetaren eraldaketarako kolaboratzaile ere.

Gure misioari eta ikuspegiari leial eusten diegu eta, aldi berean, bideragarri, gaur egungo eta iraunkor izateko ahalegina egiten dugu.

Horregatik, 2013an ere hazi egin gara: beste 11 bazkide egin ditugu. Beraz, hiru baja izan ditugunez, 8 bazkideko hazkunde osoa izan dugu. Bazkide berri horiek ere UNESCO ETXEAREN proiektuan sinesten dute eta proiektu horrekin engaiatu dira. Era berean, lankidetzan arituko dira gure erronkak bultzatzeko, eta ezagutza, babesa, askotariko elkarlana eta baliabide ekonomikoak emango dituzte. Bazkideak dira, lehen-lehenik, euskal gizarteak UNESCO ETXEAREKIN duen konplizitatearen eta UNESCO ETXEAK gizartearekin duen konplizitatearen adierazgarri; UNESCO ETXEAK, hain zuzen, gizarterako baliagarri izan nahi du, eta onura eman nahi dio.



Iñigo Urkullu Lehendakariarekin bilera. Gasteiz. 2013ko ekainak

2013an, halaber, jarduera ugari egin dugu, jarduera askotarikoak eta irismen desberdinekoak. Animatzen zaituztet memoria labur hau lasai-lasai irakurtzera, eta animatzen zaituztet, orobat, gure WEBGUNERA aldi behin sartzera; ziur nago harritu egingo zaretela zein jarduera onak eta zenbat egiten ditugun ikusten duzuean.

Baina gure kontuen errealitateak, bai Urteko Ustiapenarenak bai Egoeraren Balantzearenak, bestelakoa erakusten digu, WEBGUNEAN ikusgai duzun Ikuskaritza Txostenean egiazta dezakezuen bezala: desoreka handia dugu jarduera on eta askoren eta baliabide ekonomiko eskasaren artean. Eta badaramatzagu urte batzuk horrela. Beraz, egitura-arazoa da, eta guztion artean behar bezala konponduko dugu datozen urteetan.

Honako hau proposatzen dut: jarrera autokritikoa hartzea, gauzak berraztertzea, ikastekoa, berritzekoa; eta, komeni eta beharrezko bada, zer garen eta zer egiten dugun berriz formulatzeko jarrera. Izan ere, halaxe ari dira egiten GKEak, oro har; garai berria bizi dugu, kanpo-aldaketa sakonak egiten ari dira eta barne-erlaketak egitea ere beharrezko da, baliagarri izaten eta zalantza ugari lagun dituela sortzen ari den mundu berri hau eraldatzen jarraitu ahal izateko.

Eta lan hori guztion artean partekatuko dugu, eta gutako bakoitzak bere jakituria eta gauzak egiteko era ona emango du bazkide, profesional eta lankideen artera, gure tokiko eta munduko aliantzekin batera. Horretarako, epe motzerako zenbait hobetze-neurri onartu ditugu Gobernu Kontseiluan, zuzendariak proposatuta. Ziur asko, epe ertainera Plan Estrategiko berria egingo dugu, eta emango dizuegu horren berri, dagokionean.

Erredakzio: UNESCO Etxeko lan-taldea ; **Edizioa:** Junio 2014

Bilbao: Isozaki Atea – Bizikidetasun plaza. Uribitarte pasealekua 12, 2. lokala. Tfna: 94 427 64 32

Vitoria-Gasteiz: Zapatari kalea 8. Tfna.: 945 26 41 96


info@unescoetxea.org – www.unescoetxea.org

NOR GARA?

UNESCO Etxea – Euskal Herriko UNESCO zentroa irabazi-asmorik gabeko erakundea (GKE) da. 1991ean sortu zen eta UNESCO (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) erakundearen printzipioak, programak eta jarduerak-ildoak euskal esparruan zabaltzeko asmoa du.

2006an Onura publikokoa deklaratu, egun, elkarteak 136 bazkide ditu, eta horiek osatzen dute erakundearen gizarte-oinarria.

UNESCO ETXeko ORGANIGRAMA



* Gainera:
- 13 Boluntario
- Eusko Jaurlaritzarekin kolaborazioan 17 bekadun
UNESCO bulegotan Amerikan, Asian eta Afrikan.

EGINKIZUNA ETA IKUSPEGIA

EGINKIZUNA

UNESCOn Konstituzioko agindua –pertsona bera eta pertsonaren duintasuna nahiz balio gorena oinarritzat hartuta bake bidezkoa eta duina eraiki behar dela dioena– partekatzen dugu. Eta horretarako, elkarte, UNESCOren sozietate zibil gisa, euskal elkarte solidarioa bihurtu da, nazioartean jardungo du eta:

- Aktiboki hartzen du parte tokiko nahiz nazioarteko ekimenetan eta sareetan;
- Elkarrekintza eraldatzailea sustatzen du euskal gizartearen eta nazioarteko komunitatearen artean batez ere UNESCO eta NBErekin;
- Bere iritzi eta irizpideen ekarpena ere egiten du, hainbat modutara: ikerketaren, eragitearen, prestakuntzaren, berrikuntzaren eta dibulgazioaren bidez.

IKUSPEGIA

Bake-kultura eta giza garapen iraunkorra –eskubideak eta erantzukizunak dituen– lortzeko egiten dugu lan. Lortu nahi dugun mundu berrian, pertsonak, gizarte-antolakundeak, hizkuntza- eta kultura komunitateak eta herriak aintzat hartuko dira heritartasun global demokratikoa eraikitzeko. Horretarako, giza talde sortzailea, parte-hartzailea, paritarioa eta aktiboa sortu dugu, elkartearen misioarekin eta balioekin bat datorrena.



Gure zuzendaria, Mikel Mancisidor eta Ban Ki-Moon, NBEko Idazkari Nagusia. Geneva. 2013ko apirilak.



Euskal artista, Nestor Basterretzea, bere 'Estela Solidaria-Hillarri Solidarioa' ondoan. Lana honen diseinua UNESCO Etxeari dohaintzan eman dio eta funtzesko askatasunetan eta giza eskubideen sustapen eta babesean ekarpen garrantzitsuak egin duten pertsona zein erakundeei emango zaie.

SARE ETA ALIANTZAK

UNESCOREKIN eta Nazio Batuekin elkar hartuta...

- UNESCOrekiko Harreman Ofizialen Estatusa.
- Nazio Batuetako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren aurreko Aholkularitza Estatusa (ECOSOC).
- UNESCOren kultura-ondare ez-materiala babesteko batzordearen GKE aholkularia.
- Nazio Batuen Informazio Publikoaren Saileko (DIP) kidea.
- UNESCOren eskola elkartuen sarearen (PEA Sarea) autonomia erkidegoetako koordinatzailea eta estatuko koordinatzaileen taldeko kidea.
- UNESCOren Elkartutako Liburutegi Sareko (UNAL) kidea.

Erakunde eta proiektu ezberdinetan parte hartuz...

- UNESCOren Elkarlanerako Espainiako Batzordea.
- Nazio Batuen Milurteko Kanpaina.
- Nazio Batuen Giza Eskubideentzako Ordezkarri Nagusiaren Bulegoa (OHCHR).
- Garapenerako Nazio Batuen Programa (UNDP).
- Nazio Batuen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaren Batzordea.

...Sarean lan egiten duen nazioarteko gizarte zibilaren partaide...

- UNESCO Zentroen, Elkarteen eta Kluben Munduko Federazioa (FMACU).
- UNESCO Zentroen, Elkarteen eta Kluben Espainiako Federazioa (CECU).
- Nazio Batuen aurrean Estatus Aholku-emailea duten GKE-en Konferentzia (CONGO).
- Water Assessment and Advisory Global Network (WASA-GN).
- Gizarte Zibileko Sareen Munduko Foroa (UBUNTU).
- CONGDE-Espainiako GGKEen Koordinakundea (*Pobreziaren kontrako taldea*).
- Giza Eskubideak Defendatu eta Sustatzeko Espainiako Elkarteen Federazioa.

- Friburgoko Unibertsitateko Aniztasuna eta Kultur Eskubideen Behatokia.
- Unescocat – Centre UNESCO de Catalunya eta Linguapax Institutua.
- Munduko Landagunea.
- Waterlex.
- Cultura de Paz Fundazioa.
- Gironako Unibertsitatearen Kultura Politiken UNESCO Katedra.

...Euskal Herriatik maila lokalean eta globalean ekimen anitzetan parte hartuz...

- Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra.
- Munduko Hizkuntza Ondareari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra.
- Lurralde, Paisaia eta Ondareari buruzko UPV/EHUko UNESCO Katedra.
- Deustuko Unibertsitateko Latinoamerikako Giza Baliabideen prestakuntzarako UNESCO Katedra.
- Euskadiko GKEen Koordinakundea (*Eragin politikoa taldea*).
- Giza Eskubideetan Hezitze eta Bakearen aldeko Elkarteen Foroa.
- Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatua.
- Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Institutua.
- Euskaltzaindia.
- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa.
- Garapen Bidean.
- Euskal Kostaldeko Geoparkea.
- San Nicolás Arraun Taldea. Portugalete.
- Foro Erijijsoso Herritarra.
- Añanako Gatz Harana Fundazioa.
- Soziolinguistika Klusterra.
- Enkarterrialde.

UNESCO BEKAK

1997 – 2013

164 PERTSONA


43 HERRIALDE

Kontinenteen arabera

| | |
|----------------|------------|
| AMERIKA | 82 |
| ASIA | 45 |
| AFRIKA | 31 |
| OZEANIA | 6 |
| GUZTIRA | 164 |

Sexuaren arabera

| | |
|----------------|------------|
| EMAKUMEAK | 128 |
| GIZONAK | 36 |
| GUZTIRA | 164 |



PROGRAMAK

Pertsona guztientzako giza garapen iraunkorra eta bake bidezkoa lortuko bada, ezinbestekoa da giza eskubideak errespetatzea. Horiexek dira, hain zuzen, UNESCO Etxearen helburuak eguneroko jardunean. Hori dela eta, giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia hartzen dugu aintzat antolatzen eta bultzatzen ditugun programa eta ekimen guztietan.

UNESCO Etxeak 2013. urtean egin dituen jarduera guztien artean, honako hauek nabarmendu nahi ditugu:

BAKE KULTURA ETA GIZA ESKUBIDEAK



'Human Rights Internship Programme' III. Edizioan parte-hartzaileak Nazio Batuek. Geneva. 2013ko irailak 6-20.

Hemen bertan eta nazioartean Bakearen Kultura eta giza eskubideak sustatzeko jarraitzen du gure nortasun-ezaugarrietako bat izaten.

Giza eskubideei buruzko gogoetarako guneak antolatu ditugu; esate baterako, 'Giza Eskubideen Nazioarteko Eskubidea. Vienako Mundu Biltzarretik 20 urtera: aurrerapenak eta etorkizuneko erronkak' eta 'Gure eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak erreklamatzeko tresnak' eztabaidarako mahai-inguruak egin genituen martxoan eta abenduan, Bakearen eta Giza Eskubideen Etxean (Donostia).

Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiaren Giza Eskubideen VI. Foroa ere antolatu genuen, 'Hezkuntzarako eskubidea, eraldatzen ari den munduan' izenburuarekin, idazkaritza tekniko eta edukien koordinatzaile izan ginelarik.

Hiru topaketetan, Nazio Batuen esparruko pertsona ezagun aipagarriak izan ditugu gurekin, bai eta euskal erakunde eta instituzioetakoak ere.

Gainera, gure zuzendariak eman zuen Mexiko D.F.n egin zen 'Bakearen kultura eraikitzea: elkarriketak eta esperientziak. Gatazkan dauden harremanetatik giza eskubideak ardatz dituen bizikidetzak baketsurantz' nazioarteko mahai-inguruaren inaugurazio-hitzaldia.

Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordearen 24. biltzarren esparruan 2013ko irailaren 16tik 20ra bitartean Genevan egin zen 'Human Rights Internship Programme' prestakuntza-lantegiaren hirugarren edizioa koordinatu genuen. Euskal erakunde eta GKEetako 9 ordezkari hartu zuten parte bertan.

Lantegiak, prestakuntza teorikoa eskaintzeaz gain, aukera eman zuen, batetik, Nazio Batuen Sistemaren giza eskubideen babeserako mekanismoen funtzionamendua modu praktikoa ezagutzeko eta, bestetik, Giza Eskubideen Batzordeko hainbat instantzietan aurrez aurre parte hartzeko.

Bakerako Hezkuntzaren alde jarraitzen dugu lanean EAEko ikastetxeetan, eta ikastetxe horietako zortziren parte-hartzea koordinatu dugu UNESCOri Atxikitako Eskolen Munduko Sarean. Bost ikastetxek Europako Kontseiluaren *Monumentuei buruzko Nazioarteko Argazki Lehiaketan* parte hartu zuten. Bi ikaslek saria jaso zuten EAEko Kultura Ondareari buruz egin zituzten argazkiengatik, eta Strasburgen egin zen gazteen nazioarteko topaketan parte hartu zuten.

GARAPENERAKO KULTURA



Red Bay, Euskal baleontzien ehizagunea, Munduko Ondarea.

Eusko Jaurritzak Ingurumen eta Lurralde Politika sailburua, Ana Oregi eta Red Bay-eko alkatea, Wanita Stone. Kanada. 2013ko urriak 15-19.

UNESCO Etxeak giza garapenean kultura txertatzeko lanarekin aurrera jarraitu du 2013an. Horretarako, lankidetzan aritu gara hainbat jardueratan, hala nola, Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguneko eta Elkarrizketa eta Garapenerako Kultur Aniztasunaren Eguneko ospakizunetan. Era berean, hainbat forotan hartu dugu parte, besteak beste: 'Kultura eta garapenera buruzko NBEn goi mailako eztabaida tematikoa' foroan, New Yorken; 'Kultura-ondare ez-materialaren babesaren inguruko esperientziak' Nazioarteko Biltzarrean, Zacatecasen (Mexiko); 'Munduko Ondarearen Kudeatzaileen VII. Topaketa' eta 'Kultura-ondare ez-materiala bere protagonisten eskutik' izeneko jardunaldietan. Prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak ere gauzatu ditugu, hala nola, 'Kultura, generoa eta giza garapena' izeneko lantegia, 'Emakumezkoen genitalak moztea: kultura, generoa eta garapena' biltzerra, 'Kultura: Hurbilbide Berriak 2015 ondorengo Garapen Agendan' mintegia eta 'Kultura Iparra-Hegoa politika publiko gisa krisi garaian' elkarrizketarako mahaia.

EAEko Kultura Ondareari buruz lan egiten jarraitu dugu: gure lurraldean ondarea sustatzeko jarduerak egin ditugu eta Añanako Gatz Haranaren hautagaizari lagundu diogu, UNESCOk Munduko Ondare aitortu dezan. 'Uraren paisaiak, bizi-iturri' Nazioarteko Jardunaldiak antolatzeko laguntza eman genien.

UNESCOKo Kultura Ondare Ez Materiala Babesteko Konbentzioaren hedapena sustatu dugu. Horretarako, 'Erkidegoen eginkizuna kultura-ondare ez-materialari' konferentzia antolatu dugu, eta 'Emakumea ondare ez-materialari' proiektuaren emaitzak zabaldu ditugu.

Hizkuntza gutxiak sustatzeko lanean jarraitu dugu, EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrarekin batera, hainbat ekimenen bitartez, hala nola, 'Garapenerako lankidetzaren proiektuetan hizkuntza-irizpidea txertatzeko proposamena' lana argitaratu eta 'Hizkuntza garapenerako lankidetzan' eztabaidarako mahai-ingurua egin dugu Bilbon eta Bartzelonan.

Kultura-eskubideen esparruko errelatore bereziak, Farida Shaeedek, Derryn (Ipar Irlanda) 'Narrativas históricas y memoriales en sociedades divididas y post-conflicto' gaiari buruz antolatutako kontsultan parte hartzea deitu zituzten adituak bat gure zuzendaria izan zen. Kultur aniztasuna sustatu dugu zenbait ekintzaren bitartez; esate baterako, Nazio Batuen Zibilizazioen Aliantzak eta UNESCOk bultzatutako 'Egin keinua dibertsitatearen eta gizarteratzearen alde' nazioarteko kanpaina zabaldu dugu.

IRAUNKORTASUNA



SOSTenibles kanpaina. Ingurumenaren nazioarteko Eguna. Bilbao. 2013ko ekainaren 5a.

UNESCO Etxea sortu zenetik egon da Urdaibaiko Biosfera Erreserbari lotuta, eta 2013an lanean aritu gara nazioartean natura- eta kultura-ondare horri garrantzia ematen jarraitzeko.

UNESCOrekin, Urdaibaiko Biosfera Erreserbarekin, Stockholm Resilience Center (Suedia) zentroarekin eta Saskatchewaneko Unibertsitatearekin (Kanada) batera, *'Ecosystem Services: Understanding the Concept and its Application in Landscape Management and Sustainable Development'* izeneko lantegia antolatu genuen Kanadan egin zen EuroMaB 2013 biltzarrean, eta kudeaketan Milurtekoko Ekosistemen Azterketaren aplikazioan erreserba aitzindariaren parean jarri genuen Urdaibai. Gainera, Kanadako Parke Naturalen erakundearekin eta Red Bayko Udalararekin batera (euskal baleontzien ehizagunea, Munduko Ondare Zerrandian sartua), kultura, turismoa eta ingurumena sustatzeko eta lankidetzarako prozesua hasi dugu, lurraldea zaintzean oinarritua.

Eusko Jaurilaritzarekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta UPV/EHUko Garapen Iraunkorrari eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko UNESCO Katedrarekin batera, *'Ekosistemetako zerbitzuak biosferako erreserbetan aplikatzeari buruzko nazioarteko mintegia'* antolatu dugu. 60 aditu inguru bertaratu ziren, eta eztabaida egin zuten ekosistemen kudeaketa hobetzeko estrategia posibleen eta biodibertsitatearen eta pertsonen ongizatearen eragiten duten erabakiak hartzearen gainean, arreta berezia jarrita biosfera-erreserbetan.

2013an, nazioarteko agendan aipagarriena Garapen Iraunkorrerako Helburuak idazteko ezarritako prozesuak izan dira. 2015 ondoko Garapen Agenda berriaren zati izango dira, behin Milurtekoko Garapen Helburuen indarraldia bukatzen denean. UNESCO Etxeak Euskaditik bere iritzia eta irizpideak emanez hartzen du parte. Horren harira, Nazio Batuen Garapen Programak antolatuta Turkian egin zen *'Europa eta Erdialdeko Asiatiko Ikuspegiak 2015 ondoko garapen-agendarako'* eskualde-kontsultan parte hartu dugu, bai eta hainbat estatu-forotan ere.

Prestakuntza- eta sensibilizazio-jarduerekin jarraitu dugu; besteak beste, *'Ekonomia berdetik gizarte berdeetara: helburu dugun etorkizunerako hausnarketak'* liburua argitaratu eta aurkeztu genuen, eta UNESCOko adituek, Nazio Batuen Ingurumenerako Programak eta nazioarteko erakunde garrantzitsuek lankidetzan jardun zuten lan horretan. Martxan jarraitu du gure SOSTenibles.tv kanpainak ere, garapen iraunkorrerako lagungarri diren tokiko ekimen berritzaileak erakutsiz.

Bat egin dugu Uraren Esparruko Lankidetzaren Nazioarteko Urtearen ospakizunarekin, eta hainbat jarduera antolatu ditugu; aipagarrienak, *'Tanta bat, mundu bat, eskubide bat'* eta *'Enkarterri eta ura: Bizitza Tantik, Giza Garapen Iraunkorraren alde'* kanpainak izan dira. Nabarmentzekoak izan dira, halaber, *'Uraren Astea'* antolatu dugula, Donostian; eta *'WC: Errealitate desberdinak. Diferentes realidades'* erakusketaren sorrera, Saneamenduaren Munduko Egunaren esparruan.

ORIENTAZIO-ZENTROA, KOMUNIKAZIOA ETA BEKAK



UNESCO Beken Programa. 2013ko promozioa Pilar Dosalekin, Bizkaiko Foru Aldundiaren Berdintasunerako eta Herritarren Eskubideetarako Zuzendaritza Nagusia, eta gure lehendakaria Ruper Ormazte.

UNESCO Etxearen Orientazio, Komunikazio eta Beken Zentroak, Bizkaiko Foru Aldundiak sustatuak, 1.600 lagun baino gehiagori eman die arreta. Kontsulta gehienen xedea izan da jakitea zer aukera dauden NBE eta UNESCOn lan egiteko eta praktikak profesionalak gauzatzeko. Askok izan dira, halaber, informazio eta agiri espezializatuen bila etorritakoak, bai eta UNESCO Etxeak antolatutako jardueri buruzko argibide-eskaerak ere.

Prestakuntza eta enpleguari buruzko buletinak argitaratu dira (12, zehazki), eta honako hauek jaso dira buletin horietan: Nazio Batuen Sistemako eta nazioarteko erakundeetako 121 lan-eskaintza; NBE-UNESCOri loturiko hainbat gairen gaineko 12 prestakuntza-aukera; eta lanean txertatzeko programa eta beketarako 13 deialdi. Horrez gain, lanean orientabide eta prestakuntza pertsonalizatuko zerbitzua eskaintzen jarraitu dugu, eta Nazio Batuek pertsona bakoitzari eskaintzen dizkioten lanbide-ibilbide posibleen berri eman dugu, horren bitartez.

Zerbitzu horrekin batera, Nazio Batuen arloan espezializatutako agiriaren zerbitzua ere mantendu dugu. 3.600 lan baino gehiagoko dokumentu-funtsa kudeatu dugu, eta lau *Buletin dokumental* argitaratu ditugu.

Webguneak 330.310 sarrera izan ditu guztira; 178 albiste argitaratu dira, 5 albiste-buletin argitaratu dira (500 lagun baino gehiagok egin dute buletin horietarako harpidetza) eta gure jardueri buruzko informazioa emateko 37 mezu elektronikoko bidali dizkiegu 2.000 kontaktu baino gehiagori.

Sare sozialetan ere presentzia areagotu dugu; 1.340 jarraitzaile lortu ditugu Facebooken, eta 395 Twitterren. 31 bideo berri partekatu ditugu YouTubeko gure kanalean.

Bigarren urtez, Onda Vascako *Euskadi Hoy* irratisaioan dugun geure espazioan kolaboratzen jarraitu dugu; gure jarduerak eta UNESCOn eta Nazio Batuetan gaurkotatzen diren hainbat gai hurbildu dizkiegu entzuleei, asteazkenero. 2013an 46 programatan hartu dugu parte.

Eusko Jaurilaritzaren NBE Beka-programari esker, sei pertsona lanean hasi ziren UNESCOk Afrikan, Asian eta Latinoamerikan dituen bulegoetan. Eta beste bost lagunek beka berri zuten, bigarren urtea egiteko.

2013ko ARGITALPENAK

Catarata argitaletxeko 'Ensayos UNESCO Etxea' bilduman:

www.catarata.org web gunean eskuragarriak

- Crisis y recortes en Derechos Humanos. La defensa de los Derechos Humanos en tiempos de crisis.
- De la economía verde a las sociedades verdes. Reflexiones para el mundo que queremos.
- Reflejos de una Euskadi en paz. Retos para un futuro sin ETA.

Nazio Batuen eta UNESCOren dokumentuen gaztelaniazko eta euskarazko itzulpenak:

www.unescoetxea.org web gunean eskuragarriak

- Giza Garapenari buruzko Txostena 2013. Laburpena. Hegoaldearen Goraldia: giza garapena, aniztasun handiko mundu batean.
- Aniztasunak. Sormen-jolasa.

Berezko argitalpenak:

www.unescoetxea.org web gunean eskuragarriak

- Mintegia Rio+20 ondoren: hori da nahi dugun etorkizuna?.
- Giza eskubideak garapen lankidetzan sartzeko gida metodologikoa.
- Ecos de la serpiente. Reflexiones desde el Consejo de Derechos Humanos.
- Euskadiko lankidetzak garapenerako kulturaren egin duen lanaren azterketa.
- Garapenerako lankidetzaren proiektuetan hizkuntza-irizpidea txertatzeko proposamena.



JARDUNALDIAK

1 OHOREZKO BAZKIDEEN AHOLKU BATZORDEAREN 5. TOPAKETA

2013ko irailaren 21ean, Bakearen Nazioarteko Egunean, Ohorezko Bazkideen Aholku Batzordearen 5. Topaketa dela bide, UNESCO Etxeak "Herritarren parte-hartzea eta erantzukizuna demokrazia hobeko baterako" Adierazpena aurkeztu zuen.

Adostutako testuak dei egiten dio gizarteari pertsonak eta herriek modu aktiboan parte har dezaten; eta dei egiten die herritarrei estamentu publikoetan eska dezaten berdintasunez eta modu inklusiboan parte hartzen laguntzeko konpromisoa, bide horretatik gizateriaren balio komunak ulermena sustatzeko eta bakerako kultura bultzatzeko, hala inguru hurbilean nola mundu zabalean.

3 TITULUA 'GENEVAKO DIPLOMAZIA ETA NAZIOARTEKO HARREMANEN ESKOLAKO OHOREZKO BAZKIDEA'

UNESCO Etxeko zuzendaria, Mikel Mancisidor, Genevako Diplomazia eta Nazioarteko Harremanen Eskolako (*Geneva School of Diplomacy and International Relations-GSD*) Ohorezko Bazkide Ikertzaile izendatu zuten.

GSD unibertsitatearen espezializazioa da graduatu-ondokoak prestatzea, diplomaziaren eta gobernantza globalaren esparruetan hain zuzen, nazioarteko erakundeetan, diplomazian, enpresa pribatuetan, unibertsitateetan eta nazioarteko GKE-etan lan egiteko. Unibertsitate horrek Tokiko Gobernantza Eraikitzeko Ikerketetarako Institutu bat du (Globalcraft Institute). Hain zuzen, UNESCO Etxeko zuzendaria institutu horretako Ohorezko Bazkide Ikertzaile (Honorary Research Fellow) izango da aurrerantzean.

2 'EMAN MINUTU BAT OGIAREN ALDE' LEHIAKETA

Bere 4. edizioan, "Eman minutu 1..." lehiaketa elikadurarako eskubideari buruzkoa izan zen.

Kategoria nagusiko saria Tan-tak elkarteko 'PAN-acción' lanak eskuratu du. Saria nagusia Nestor Basterretxearen Estela solidaria-Hilarri solidarioa eskultura izan zen.

UNESCO Etxea' kategorian Eduardo González bilbotarrak irabazi du, 'Hamburua 2014' lanarekin. 'Ekin eta egin' kategorian Teresa Seguí Pérez eta Camila Ibarra valentziarrak osatutako bikotea izan zen garaile 'Comparte un minuto de pan!' lanarekin.

UNESCO Etxeak koproduzitutako Euskal zuzendaria den Unai Aranzadiren *Jambo Amani?* dokumentala estrenatu zen Dokumentala hau Giza eskubideen jaialdi desberdinetan aukeratua izan da eta Donostiako Giza eskubideen jaialdian atal ofizialean aurkeztua izan da

4 LIGA ESPAÑOLA PRO-DERECHOS HUMANOS ERAKUNDEAREN URREZKO MEDAILA

Martxoaren 15ean Mikel Mancisidorrek Liga española Pro-derechos Humanos erakundearen urrezko medaila jaso zuen, gizarte zibiletik giza eskubideei egindako eskaintzagatik.

Saridunak izan ziren ere, besteak beste, Angel García Rodríguez Jauna (Aita angel), Mensajeros por la Paz erakundearen Fundatzaile eta Presidentea eta Emilio Ginés Jauna, Torturaren Prebentziorako NBERen Azpibatzordeko kidea.



DATU EKONOMIKOAK

GARDENTASUNA

Gure kontuak LKS Auditores, S.L.-k ikuskatzen ditu. Kontu-ikuskaritzaren txostenak www.unescoetxea.org web gunean daude.

UNESCO Etxeak bere ahalegina eskertzen die hurrengo enpresa eta erakundeei, 2013an laguntza eman baitigute bake-kulturaren eta giza eskubideen alde lanean jarraitzeko.



Sarrera pribatuen eta publikoen jatorria

| Sarrerak guztira 2013 | 774.052,07 | |
|---|-------------------|---------------|
| Ekarpen pribatuak | 78.298,79 | %10,12 |
| Bazkideak | 11.720,00 | %1,51 |
| Erakunde pribatuak | 30.896,29 | %4,00 |
| Beste Batzuk (ikastaroetako izen-emateak, publizitate balioespena...) | 35.682,50 | %4,61 |
| Ekarpen publikoak | 695.753,28 | %89,88 |
| Eusko Jaurlaritzia (*) | 509.319,76 | %65,80 |
| Aldundiak (BFA- GFA) | 76.331,43 | % 9,86 |
| Udalak (Bilbao, Getxo, Basauri, Gasteiz) | 43.925,34 | %5,67 |
| Atzerri eta Lankidetzeta Ministerioa | 30.576,75 | %3,95 |
| Beste batzuk (Lokalen lagapenaren amortizazioa) | 35.600,00 | %4,60 |

(*) Eusko Jaurlaritzan:

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia: FOCAD proiektuak 27,86%; ONU bekak 15,78%; Ingurumen eta Lurralde Politika Saila 11,83%; Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza 3,22%; Hezkuntza Sailburuordetza 4,65%, Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetza 1,62%; Lehendakaritza 0,84%.

2013ko Auditoriaren txostena



LKS AUDITORES, S.L.P.
 Auditoría Independiente
 C/ San Juan de los Rios, 11
 48003 BILBAO
 www.lksauditores.com

INFORME DE AUDITORIA DE CUENTAS ANUALES ABREVIADAS AL 31 DE DICIEMBRE 2013
 Al Consejo de Gobierno de:

ASOCIACIÓN UNESCO ETXEA – CENTRO UNESCO DEL PAIS VASCO

1. Hemos auditado las cuentas anuales abreviadas de ASOCIACIÓN UNESCO ETXEA – CENTRO UNESCO DEL PAIS VASCO, que comprenden el Informe abreviado al 31 de diciembre de 2013, la cuenta de resultados abreviada y la memoria abreviada correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha. El Consejo de Gobierno de la Asociación, de acuerdo con el marco normativo de información financiera aplicable a la entidad (que se identifica en la Nota 2.1 de la memoria abreviada adjunta) y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo. Nuestra responsabilidad es expresar una opinión sobre las cuentas anuales abreviadas en su conjunto, basada en el trabajo realizado de acuerdo con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas vigente en España, que requiere el examen, mediante la realización de pruebas selectivas, de la evidencia justificativa de las cuentas anuales abreviadas y la evaluación de si su presentación, los principios y criterios contables utilizados y las estimaciones realizadas, están de acuerdo con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación.

2. En nuestra opinión, las cuentas anuales abreviadas del ejercicio 2013 adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de ASOCIACIÓN UNESCO ETXEA – CENTRO UNESCO DEL PAIS VASCO, al 31 de diciembre de 2013, así como de los resultados de sus operaciones correspondientes al ejercicio anual terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

San Sebastián, 26 de mayo de 2014

LKS AUDITORES, S.L.P.
 R.O.M.C nº 21054

M^{te} Mercedes Pascual Maestre

M^{te} Mercedes Pascual Maestre

www.lksauditores.com

Programetako gastua

| GASTUAK GUZTIRA 2013 | 771.144,17 | |
|--|------------|--------|
| Orientazio-zentroa, komunikazioa eta bekak | 68.452,78 | 8,88% |
| UNESCO Bekak | 122.159,90 | 15,84% |
| EGKE Programa | 33.282,04 | 4,32% |
| Iraunkortasuna Programa | 183.234,37 | 23,76% |
| Garapenerako Kultura Programa | 192.680,35 | 24,99% |
| Bake kulturaren eta Giza Eskubideen Programa | 33.656,46 | 4,36% |
| Nazioarteko harremanak | 4.786,47 | 0,62% |
| Kudeaketa orokorra | 112.891,79 | 14,64% |
| Aurreko ekitaldietako funts-homidura | 20.000,00 | 2,59% |

Egoera-balantzea 2013

| AKTIBOA | 2013 |
|-------------------------|-------------------|
| Aktibo ez-zirkulatzaila | 230.308,78 |
| Aktibo zirkulatzaila | 508.718,10 |
| Aktiboa guztira | 739.026,88 |

| ONDARE GARBIA ETA PASIBOA | 2013 |
|--|-------------------|
| Fondo propioak | 47.820,90 |
| Lokalen lagapenak balioespena, Hainbat-urtetarako diru-laguntzak | 563.606,60 |
| Pasibo zirkulatzaila | 127.599,60 |
| Ondare garbia eta pasiboa guztira | 739.026,88 |